

KANPO ESPAZIOAK HAUR HEZKUNTZAN

GRADU AMAIERAKO LANA

EGILEA: Fernandez Etxeberria, Maddi

ZUZENDARIA: Aristizabal Llorente, M^a Pilar

HAUR HEZKUNTZAKO GRADUA
HEZKUNTZA ETA KIROL FAKULTATEA
GASTEIZ
2021-2022

LABURPENA

Hezkuntzan aldaketa etengabea da eta honek zuzenean lotuta dauden gaiak mahi gainean jartzera garamatza. Espazioek berebiziko garrantzia daukate hezkuntzan, izan ere, hauek asko baldintzatu dezakete umeen garapena, horregatik, honen inguruan eztabaidatzea lehentasuna da. Hurrengo Gradu Amaierako Lanak kanpoko espazioen inguruan dihardu. Bertan argi azaltzen da espazioak ere hezi egiten duela eta kontuan izan behar dugun alderdi bat dela. Hainbat autoreren teoriak gurera ekarriz, Lantziego ikastolako kanpoko espazioaren diagnosis egin da, eskola horrek dituen onurak eta gabeziak mahigaineratuz eta espazio hori hobetzeko proposamena eginez.

RESUMEN

El cambio en la educación es constante y esto nos lleva a poner encima de la mesa temas directamente relacionados. Los espacios juegan un papel fundamental en la educación, ya que estos pueden condicionar mucho el desarrollo de los niños, por lo que debatir sobre ello es una prioridad. El próximo Trabajo Fin de Grado gira en torno a los espacios exteriores. En él se explica claramente que el espacio también educa y que es un aspecto que debemos tener en cuenta. Aportando las teorías de varios autores, se ha realizado un diagnóstico del espacio exterior de la ikastola de Lantziego, analizando los beneficios y carencias de esta escuela y haciendo una propuesta para mejorar ese espacio.

AURKIBIDEA

1. SARRERA.....	3
2. JUSTIFIKAZIOA.....	4
3. MARKO TEORIKOA.....	4
4. HELBURUAK.....	13
5. METODOA.....	14
5.1. Testuingurua.....	14
5.2. Parte hartzaileak.....	15
5.3. Informazioa jasotzeko tresnak.....	16
5.4. Informazioaren analisisa.....	18
5.5. Prozedura.....	21
6.- EMAITZAK.....	22
6.1. Kanpo espazioa eraberritzeko proposamena.....	27
7.- EZTABAIDA ETA ONDORIOAK.....	29
8.- MUGAK ETA HOBEKUNTZA PROPOSAMENAK.....	31
9.- ERREFERENTZIA BIBLIOGRAFIKOAK.....	32
10.- ERANSKINAK.....	35

1.- SARRERA

Espazioek berebiziko garrantzia daukate hezkuntzan, izan ere, umeen heziketaren alderdi garrantzitsua dira. Garapen testuinguruek haurren garapena baldintzatuko dute, eta horregatik eskoletan, oso ondo pentsatuta egon behar den alderdia da. Eskolako espazio guztiek umeen garapenean eragina izango dute, bai barne espazioek eta bai kanpo espazioek ere. Azken hauei garrantzi gutxiago ematen zaie normalean, eta lan honetan, kanpoko espazioek haurren garapenean daukaten eraginaz arituko naiz.

Gaur egungo kanpo espazioen eredua aldatu ahal izateko interesgarria da Eskoletako kanpo espazioen inguruko hausnarketa sakona egitea. Izan ere, espazioak, duen antolaketaren arabera, haurren garapen eta autonomian lagundu edo oztopatu dezake. Hau da, espazio desegoki bat kaltegarria izan daiteke haurren garapen egokirako. Eta ondorioz, haurren garapen egoki bat nahi baldin badugu, barruko espazioez gain, kanpo espazioak ere kontuan hartu behako ditugu.

Haurrek ordu asko pasatzen dituzte jolastokian, eta asko dira espazio horretan gertatzen diren esperientziak eta ikaskuntzak ere. Bertan, harremanak izaten dituzte, gatazkak bizitzen dituzte, eta haien trebetasun sozial eta emozionalak garatzen dituzte. Horrela, generoen, adinen eta kulturen arteko harreman-gune bihurtzen da jolastokia. Baina, nolakoa izan beharko litzake eskola bateko jolastokia haurren garapen egokia bermatzeko? Hori da lan honekin hasterakoan nire buruari egin diodan galdera, eta lan honetan zehar erantzutea da nire helburua.

Lan honetan, lehenik eta behin, alderdi teorikoa aurkeztuko da, eta bertan, autore desberdinek esaten dutenean oinarrituta, espazioek, eta batez ere, kanpo espazioek hezkuntzan daukaten garrantziaz arituko naiz. Gaiaren inguruko alderdi teorikoa landu ondoren, ikerketa lan honen helburu orokorrak eta espezifikokoak zehaztuko dira. Geroago, atal praktikoa landuko dut. Atal praktikoa haur egiteko, Lantziego Ikastola eskola publikoko jolastokian oinarritu naiz, eta bertan, jaso dut informazio guztia. Lanaren atal praktikoa amaiara eman ondoren, jasotako informazioaren emaitzak azalduko dira. Azkenik, lanaren ondorio orokorrak eta hobekuntza proposamenak etorriko dira.

2.- JUSTIFIKAZIOA

Nire bizitzan zehar, ikusi eta ezagutu ditudan eskola gehienetako jolastokiak oso antzekoak izan dira: guztiz asfaltatuak, naturaren presentzia eskasa dutenak, eta kirolei, eta batez ere futbolari protagonismo gehiena ematen diotenak. Espazioetan oso gutxi erreparatzen da eskoletan, batez ere kanpoko espazioetan, nahiz eta berebiziko garrantzia daukan alderdi bat den. Gai honek, interes handia sorrazten dit, eta interes horrek, eraman nau espazioen inguruko hausnarketa sakon bat egitera.

Nire ustez, oso garrantzitsua da hezkuntza munduan lan egiten duten pertsona guztiek, espazioen antolaketaren inguruko formakuntza jasotzea eta gaiaren garrantziaz kontzientziatuta egotea. Benetan interesgarria eta beharrezkoa den gaia dela uste dut. Izan ere, gaur egun planteatuta dauden jolastoki gehienek haurren garapenean, autonomian eta haien autokontzeptuan eragin kaltegarria izan dezaketelako, eta espazio egoki batek aldiz, asko lagundu dezakeelako.

3.- MARKO TEORIKOA

Lan hau hasteko, interesgarria iruditzen zait aurreko pedagogoez gaur egun eskain ditzaketen oinarriak ezagutzea. Hauei errepasso txiki bat ematea aberasgarria izan daiteke gaurko heziketa ekintzei zentzua bilatu ahal izateko.

Pedagogia berritzaile guzti hauen artean desberdintasun handiak egon arren badira ideia batzuk behin eta berriz errepikatzen direnak: haurra pertsona aktibo bezala ulertzea, askatasuna, mugimendu askea, jolas espontaneoaren garrantzia, haurraren interesa, ingurunearekin eta naturarekin kontaktua, giza harremanen garrantzia... Silventek (2016), “Diseñar espacios educativos” liburuan, ondoren aipatuko ditudan autoreek gaur egungo eskolan izan duten eragina aipatzen du. Ideia guzti hauek eragin zuzena dute lan honen gaiarekin, espazioen antolaketa eta bereziki kanpo espazioak erabiltzearen garrantziarekin:

Rousseau (1712-1778). Prozesuak eta erritmoak errespetatzearen eta haurrari denbora ematearen garrantzia azpimarratu zuen. Naturalismo pedagogikoaren defendatzaile izanik, hezkuntzaren helburua zoriontasuna dela uste zuen. Haurrak bere barneko nia entzunez eta bizipen aktiboaren bidez ikasten du, naturarekiko esperientziatik abiatuta. Nahiz eta Rousseauk ideia hau mutilentzako bakarrik pentsatzen zuen, argi utzi nahiko nuke haur

guztientzako baliozkoa dela. Izan ere, autore honek ideia hau mutilentzat aldarrikatzen zuen. Nesken heziketa berriz, mutilen zerbitzura oinarritu behar zela zioen. Balorean jarri nahiko nuke hezkuntza ikuspuntu guztiak inklusiboak direla eta ez genero bat edo bestearentzako soilik, inongo desberdintasunik egin gabe.

Pestalozzi (1746-1827). Roussearekin desberdintasun batzuk izan arren, naturalismo pedagogikoaren kontzeptua partekatzen du autore honekin. Hezkuntzak zorientasuna sortu behar duela uste du, bestalde, natura ezinbestekoa da haurraren heziketan.

Fröbel (1872-1852). Hezkuntza aktiboaren aitzindaritzat jotzen da, haurrarekiko errespetua eta jolasaren garrantzia azpimarratzen ditu. Haurrari askatasunez mugitzen eta jolasten utzi behar zaio.

Decroly (1871-1932). Interesguneen bidez egiten du lan. Pedagogia aktiboa defendatzen du, askatasunean eta norberaren erantzukizunean oinarrituta dagoena.

Montessori (1870-1952). Frogatu zuenaren arabera, haurrak zer egin aukeratu dezakeenean eta gai batekiko interesa azaltzen duenean, gehiago eta hobeto ikasten du. Honen arabera, ikaskuntza errazteko testuinguru edo espazioak prestatzeari garrantzia handia ematen dio.

Freinet (1896-1966). Bizitza errearen parte den eskola baten bidez, hezkuntzaren helburua pertsona askeak sortzen laguntzea da. Ingurunearekiko kontaktuaren bidez ikastea bilatzen du.

Neill (1883-1973). Ingalaterran “Summerhill” eskola sortu zuen. Bere ustez, hezkuntzaren helburua haur zorientsuak sortzea da. Haurraren askatasuna defendatzen du, eskola haurraren esku jartzen da honen beharrei erantzuna ematen saiatuz.

Wild (1939-2015). Bere senarrarekin batera, Mauricio, Pestalozzi zentru esperimentalak sortu zuen Ekuadorren. Montessori, Piaget, Freinet eta beste autore askoren ideiak oinarri hartuta errespetuan, harremanetan, askatasunean eta beharrak asetzaren gozamenen oinarritutako eskola sortu zuen, haurraren jolas espontaneoan oinarritutako eskola hain zuzen ere.

Malaguzzi (1920-1994). Famatua Italian Reggio Emilia Haur Eskoletan izandako esperientzia dela eta. Eskola bizirik dagoen organismo bezala ikusten du, haurrek eta helduek ikertzeko laborategia. Entzutearen pedagogiaren sortzailea da eta haurren 100 lengoaien adierazpena aldarrikatu zuen. Malaguzziren ustez haurrek benetako esperientziak dituzte,

esperientzia hauek erantzun eta ondorio batzuk izango dituzte eta ondorio erreal hauek aztertuta erabakiak hartu ahal izango dituzte.

Autore guzti hauek honako ideia hauek partekatzen dituzte:

- Hezkuntza ez da ezagutzak transmititzera mugatu behar. Haurra bizitzarako prestatu behar du eskolak.
- Eskolak bizitzarako prestatu behar duenez, ezagutzak ez dira bizitzatik bereiztu behar.
- Ezagutzak sinpletik konplexura antolatu behar dira, errealetik abstraktura.
- Haurrak bere ezagutza eraikitzen du. Honetarako, esperimentazioa, bizipena eta manipulazioa ezinbestekoak dira.

Lau ideia hauek kontutan hartuta eta Truebak (2015) azpimarratzen duen bezala, haurrak bizitza errealerako prestatu behar ditugula sinesten badugu, argi dago bizitza errealeko espazioak kontutan hartu beharko ditugula gure hezkuntza sisteman (natura, herriko enparantza, patioak, kaleak, instalazioak...). Esan bezala, ezagutzak ez dira bizitzatik bereiztu behar, sinpletik konplexura antolatu behar dira, errealetik abstraktura eta haurrak berak eraiki behar du ezagutza hori esperimentazioaren, bizipenaren eta manipulazioaren bidez.

Pedagogo guzti hauek garrantzia handia ematen diote haurraren jolas espontaneoari, naturan oinarritutako esperientziei, haurraren bizipen aktiboari, esperimentazioari, manipulazioari, harremanei, askatasunari, zoriontasunari... eta ezingo dugu ukatu guzti hau aurrera eramateko ezinbestekoa dela garapen testuinguru edo espazioaren antolaketa egokia eta ingurune naturala kontutan izatea. Honen ildora, Malaguzzik (2001) dio umeek 3 hezitzaile izan behar dituztela: Heldua, beste umeak eta ingurune fisikoak (espazioak).

Espazioaren garrantzia Haur Hezkuntzan:

Zarriasen (2017) arabera, espazioaren antolaketa berebiziko garrantzia du Haur Hezkuntzan. Hauek antolatzeko orduan, kontuan hartu behar da, hurrek eta helduek, bizi, pentsatu eta mugitu egin behar dutela bertan. Eraikitako espazioek ikerketa, elkarrizketa eta mugimendua sustatu behar dute. Testuinguru positibo bat sortu behar da, aberatsa eta iradokitzailea, hurrek hausnartu eta ikasitakoaz gozatu dezaten. Reggio Emiliako haur eskoletako pedadogo batek esaten duen bezala, pedagogia eta arkitektura elkarrekintzan egon behar dute (Araujo *et al.*, 2007).

Espazio hauek lasaiak izan behar dute, haurraren erritmoa errespetatu behar dute eta honen beharrak kontuan hartu behar dituzte. Euskal Herriko Unibertsitateko irakasle eskolako irakasle batek, espazioa antolatzeko orduan kontuan hartu behar diren haurren oinarritzko beharrak zerrendatzen ditu (Agirre *et al.*, 2012):

- Behar fisiologikoak: elikadurarekin, atsedinarekin eta higieinarekin loturiko beharrak.
- Behar afektiboak
- Mugimenduaren beharra
- Jolasteko beharra eta ondo pasatzeko beharra, izan ere, jolasa da ikasketa prozesuaren oinarria.
- Sozializatzeko beharra
- Autonomiaren beharra
- Komunikatzeko beharra eta adierazteko beharra
- Aurkikuntza eta esplorazioaren beharra
- Espazioan sentitzeko eta norbera ezagutzeko beharra
- Manipulatzeko beharra.
- Sortzeko eta irudimenerako beharra

Zarriasek (2017) aipatzen duen bezala, espazioetan haurrentzat proposamen egokiak antolatu eta koordinatu behar ditu irakasleak eta haurrek egiten dizkioten gonbidapenak eta ekarpenak onartu. Irakaskuntzaren helburua ez da ikaskuntza sortzea, ikasteko baldintzak sortzea baizik.

Hezitzaileak haurraren ahalmenari egokitzen diren esperientziak proposatu behar ditu eta gero haurrari behar duen denbora eman. Haurrek ez dute mundua ezagutzen baina mundua ezagutzeko tresnak badituzte eta ezagutu nahi dute. Gai dira munduarekin erlazionatzeko, baita beren ezagutzak eraikitzeke ere. Jakin mina duten pertsonak dira, eta mundua ezagutu nahi dute. Hipotesiak eta teoriak sortzen dituzte eta gaitasun honi esker geroz eta konplexuagoa den errealitatearen pertzepzioa eta ezagutza eratzen dute (Zarrias, 2017).

Umeak eskolan dauden denbora pentsatuta izan behar dugu, hau da, eskolan egiten ditugun proposamen guztiak pentsatuta izan behar ditugu, jolas bakoitza eta espazio bakoitza. Garapen testuinguru desberdinak sortu behar ditugu, esanahien eta ikasteko aukeren aldetik testuinguru aberasgarriak sortu behar ditugu.

Espazio hauek diseinatzekoan estetikari ere erreparatu behar diogu. Baina ez dugu estetika edertasunaren kontzeptua bezala ulertu behar, askoz ere kontzeptu konplexuagoa baita. Reggio Emilia eskolen arabera, zentzumenen pertzepzioak aktibatzeo gai den oro da estetika. Estetikak garrantzi handia dauka, seduzitzen eta gozarazten digunak jakin mina sortzen digu eta horrela ikasten dugu. Azken finean, hori izan behar da espazioen helburua, baliabide erakargarriak eskaintzea hurrek autonomiaz beraien ekintzak eta ezagutzak eraikitzeo (Araujo *et al.*, 2007).

Beraz, espazioen diseinuarekin hasi baino lehen, beharrezkoa da daukagun haurren irudia eta nora zuzendu nahi den berrikustea. Ez du balio espazio zainduak pentsatzea bakarrik, nortzuk erabiliko duten eta nola egingo duten hausnartu gabe. Haurtzaroaren kontzeptua berrikusi behar da, espazioak diseinatzeko bidea irekitzen duten oinarriak ezartzeko.

Umeenak eta umeentzat diren espazioak, beren kultura garatzeko aukera ematen dutenak, jolas zoragarriak iradokitzen dituztenak, helduaren helburuekin markatuta ez daudenak, interesa, jakin-mina, emozioa pizten dituztenak, garapen lasaiak eta presarik gabekoak sustatzen dituztenak. Malgutasunez ikerketarako eta arazo egoera desberdinei aurre egiteko aukera emanez (Trueba, 2015).

Kanpo espazioak

Espazioak diseinatzekoan kanpo espazioak ere kontutan izan beharko ditugu, hauek ere aukera ugari eskaintzen baitizkigute. Eskola ez da lau hormen barruan mugatu behar. Eskolako patioa heziketa gune bat gehiago izanik, birpentsatzea, berrantolatzea, diseinatzea eta material egokiz hornitzea ezinbestekoa da. Geure buruari galdetu beharko genioke ea eskolako patioak benetan hurrek dituzten beharrei erantzuten dieten, zer nolako jolas eta ikaskuntzak indartzen diren eta nolakoak indartu nahi ditugun, nolako rolak erreproduzitzen diren eta nolakoak bultzatu nahiko genituzkeen... Guzti honen inguruko hausnarketa sakon bat egiteak berebiziko garrantzia duela uste dut (Cols, 2008).

Haurren garapenerako naturarekin kontaktua izatea ezinbestekoa da. Nair (2016), arkitekto eta idazleak dioen bezala, ikasteko, espazioak naturarekin lotuta egon beharko lukete, bisualki eta fisikoki. Inguru natural batek meditatzeo eta hausnartzeko aukera ematen du, eta hurrek aukera hori izatea oso aberasgarria da. Gainera, esaten duenez, naturarekin harremanak neke kognitiboa arintzen eta kontzentratzeo gaitasuna hobetzen laguntzen du eta TDAH sintomak dituzten haurrentzako ere oso onuragarria da.

Esan bezala, ezagutzak eskuratzeko oso onuragarria izan daiteke kanpo espazioetaz baliatzea. Natura ekarri behar dugu eskolako patioa. Eskolako lehioak ireki eta natura ikusi, sentitu, usaindu. Naturarekin kontaktua eta naturarekin bat izatea. Nair-en (2016) arabera, naturarekin harremanetan ikastearen onura batzuk honako hauek izan daitezke:

- Lehen aipatu bezala, TDHA duten haurrak hobeto kontzentratzen dira naturarekin kontaktua izan ondoren.
- Natura-giroan jolasteak eskola-jazarpena murrizten du.
- Naturak haurrei behaketaren eta sormenaren gaitasuna garatzen laguntzen die.
- Frogatu da adin goiztiarrean naturarekin esperimentatzeak lotura positiboa duela irudimenaren garapenarekin eta harriduraren gaitasunarekin, eta harridura bizitza osoan ikaskuntza bultzatzen duen eragile garrantzitsua da.
- Naturan jolasten duten haurrek besteenganako sentimendu positiboagoak erakusten dituzte.
- Haurrek kanpoko espazioetan ematen duten denbora murrizteak miopia areagotzen laguntzen du herrialde garatuetan.
- Kanpo espazioetan aritzea garrantzitsua da haurren independentzia eta autonomiaren garapenerako.

Orokorrean, bizitza akademikoan, denboraren %99-a ikasgela barruan egiten da. Baina, haurrek ikertuz eta esploratuz ikasten badute, ez dauka zentzurik, ikerketa edo esplorazio hori gela baten barruan egin behar izatea. Kanpoko espazioa gehiago aprobetxatu behar da, eta naturak haurrengan daukan eragin positiboaz baliatu haurren ikaskuntza prozesu egoki baterako.

Eskoletako jolastokia antolatzeko orduan **genero-rolak** ere kontutan hartu behar ditugu. Desegoki antolatutako jolastoki batek gizarteak inposatzen dituen genero rolak islatu eta erreproduzitzera bultzatu dezake. Gure gizarteak, historian zehar, sexu maskulinoa eta sexu femeninoaren eskubideak eta aukerak berdintzeari dagokionez asko aurreratu du, baina hala ere, oraindik asko dago egiteko, izan ere, gure sexuaren arabera rol esleituak eta finkatuak baititugu, eta hori, inkontzienteki bada ere, umeei transmititzen diegu.

Haurrek askatasunez jolasten dute, baina pixkanaka gizartetik jasotzen dituzten genero-rolak barneratzen dituzte, izan ere, haien jokatzeko modua aztertu ezker, jokamolde horrek gizartean errotuta ditugun genero-rolak errepikatzen dituela konturatuko gara.

Larramendik (2016) aipatzen duen bezala: “Mutilei akziora bideratutako ekintzak sustatzen zaizkie batez ere, botere-guneetan egoteko behar diren ezaugarriak lantzen dituztenak: borroka, indarra, abilezia... Mugitzera eta espazio gehiago okupatzera bultzatuak dira, bai plano fisikoan, bai diskurtsoan eta bai esfera publikoan ere. Emakumeei, aldiz, zaintzekin eta edertasunarekin erlazionatutako aktibitateak sustatzen zaizkie, pasibotasuna, lasaitasuna eta aktibitate fisiko gutxiago behar izan ohi dutenak. Balio horiek hezkuntzaren bitartez transmititzen dira, baita gizartean eraikitako erreferente eta errepresentazioen bitartez ere”.

Azpeitiko Karmelo Etxegarai eta Duranako Ikasbidea Ikastolan, patioaren inguruko hausnarketa egiterakoan ondorio hau atera zuten (Azurmendi *et al.*, 2018): futbola da jarduera nagusia eskoletako jolastoki gehienetan, patioaren erdigunean futbol zelaia dago eta gehienetan gizonezkoak ibiltzen dira bakarrik. Espazioaren zatirik handiena jarduera bakar baterako erabiltzen denean, ematen dugun mezua gizarte honetan jarduera horrek garrantzi handiena duela da. Hala, mutilei ematen diegu protagonismo osoa.

Patioaren erabileraren inguruko hausnarketarik egiten ez badugu, gauzak lehen bezala mantentzea nahi dugula esan nahi du. Baina hau bat dator eskolan dugun Hezkuntza Proiektuarekin? Zer egin dezakegu eskolako patioa gune hezitzaile bat gehiago izateko? Zer egin dezakegu eskola moduan ditugun baloreak patioan ere transmititzeko?

Berebiziko garrantzia dauka espazio hezitzaile batek genero rolak alde batera uztea eta hezkidetzan oinarrituta egotea. Bilgune Feministako partaide baten arabera “Jendartean dauden ereduak birsortzeko baino, jendarte justuago bat eraikitzeke eta eraldaketarako balio behar du hezkuntzak” (Agirre *et al.*, 2012).

Espazioen diseinuak ezinbesteko eragina dauka umeen portaeran, eta horretaz baliatzea oso aberasgarria izan daiteke gizarteak inposatutako genero-rolak apurtzeko, izan ere, espazioek hori aldatzeko ahalmena izan dezakete. Jolastokia espazio garrantzitsua da umeen ikaskuntza prozesuan, ez da bakarrik gozatzeko eta jolasteko espazio gisa ikusi behar, beste espazio hezitzaile bat bezala baizik. Jolastokian, garapen pertsonal eta sozialarekin lotutako abildadeak garatzen dira, ikasleek berdinekiko dituzten erlazioetan eta taldeetan integratzeko gaitasunean eragina dutenak. Azken finean, jolastokia ikaskuntza sustatzen duen beste espazio bat da, eta horrela ulertu behar dugu irakasle guztiok (Cols, 2008).

Azpeitiko Karmelo Etxegarai eta Duranako Ikasbidea Ikastolan, patioa eraldatzeko orduan kontutan izan beharreko honako ezaugarriak nabarmendu zituzten (Azurmendi *et al.*, 2018):

- Mugimendua sustatuko duten espazioak izatea: Hurrek mugitzeko beharra dute, gainera, gela barruan geldirik egon ondoren, patioa mugimendu askoko gunea bilaka daiteke eta horretarako aukerak ematea beharrezkoa da. Ereku hauek segurtasuna bermatu behar dute eta atseginak eta erosoak izan behar dute.
- Espazio naturalak eta hondartegia: Naturarekin kontaktuan egotea ezinbestekoa da, hau dela eta, ahal den neurrian, berdeguneak ipini beharko genituzke (baratzak, zuhaitzak...). Bestalde, naturak eta hondartegiak esploraziorako eta esperimenezko aukera handia ematen dute.
- Jolas sinbolikorako eremuak: Haurraren garapenean jolas sinbolikoak berebiziko garrantzia hartzen du. Material natural eta egituratu gabekoa, ezkutatzeko eta intimitatean egoteko txokoak oso beharrezkoak dira.
- Kirol eta jolas desberdinak egiteko eremuak: futbolaz gain, beste jolas batzuk ikasteko eta jolasteko espazioak (soka saltoa, harrapaketak, goma, brilea...).
- Mahai jokoak eta jolas lasaiak: Haur batzuk nahiago dute patio orduan lasai egotea. Hauentzat aukera ona izan daiteke lasai egoteko txoko hauek prestatzea eta bertan nahi badute mahai jolasetan ibiltzeko aukera ere izatea. Espazio hauek gogoeta pertsonalerako, komunikaziorako eta hausnartzeko aukera ere ematen die haurrei.

Bukatzeko, genero berdintasuna bermatzen duten espazioak eta denen premiei erantzuten dienak eraiki beharko genituzke. Gure Hezkuntza Proiektuarekin koherenteak direnak eta bertako ideiekin bat datozenak.

Espazioetako materiala:

Espazioaren inguruan hitz egiterakoan ezinbestekoa da hauetan ipiniko dugun materialaren inguruko hausnarketa ere egitea. Haurraren adinari egokitutako materiala izan behar dute espazio hauek, dauden garapen etaparen arabera. Espazioaren antolaketa egokiaren funtsa, haurrari rol aktiboa ematea da, bere ikasketa prozesuaren protagonista izan dadin, eta honetan aukeratutako dugun materialak eragin zuzena izango du.

Truebaren (2015) arabera, materialak aukeratzeko, kontutan izan behar dugu ze helburu landu nahi dugun momentu bakoitzean. Adibidez, autonomia landu nahi badugu, argi izan behar dugu materiala umeen esku egon behar dela, beraien altueran. Bestalde, helduaren beharra ez duten proposamenak egiten saiatuko gara.

Materiala beti egon behar da ondo aurkeztuta, ordenatuta eta estimulu gehiegirik gabe. Mota bereko materialen ordeztu, material desberdinak proposatzea aberasgarriagoa da. Objektu mota bakoitzak potentzial desberdina du, hau dela eta, hobe da material anitza eskaintzea mota bereko material asko eskaintzea baino.

Bestalde, material irekiak lehenetsiko ditugu material itxien aurretik. Material irekiak erabilera eta aukera ugari eskaintzen dituztenak dira (buztina, eraikuntza-blokeak, harriak, botoiak, egurrak, kutxak, hondarra, ura...). Material itxiak berriz, erabilera bakarra eskaintzen dutenak dira (puzzleak, enkajeak...) (Freire 2015).

Material irekiek adierazpen-lengoaia aberatsagoa sustatzen dute eta pentsamendu sortzaileraren ere bultzatzen dute. Garapen motorrerako materialak, garapen linguistikoa bultzatzen dutenak, esperimentazioa, harremanak, oreka pertsonala, autoestimua eta garapen kognitiboa bultzatzen dituen materiala aukeratu beharko dugu.

Plastikozko materialak espazio hezitzaileetatik kanpo egon beharko lirateke. Wardenen (2010) arabera: “Aurrez fabrikatutako jostailuek aukera galarazten diete haurrei euren kabuz pentsatzeko, diseinatzeko, arazoak konpontzeko eta, are garrantzitsuagoa dena, norik bere kabuz zerbait sortzeaz harro eta gustura sentitzeko”. Izan ere, jostailu konbentzional gehienek larregi estimulatu dituzte, batez ere, entzumena eta ikusmena, eta mendekotasun bat eragiten dute. Gainera, horrelako jostailu gehienak egituratuta egoten dira, aukera gutxi eskaintzen dute, jolasa gehiegi bideratuz eta sormena mugatuz (Freire, 2015).

Horregatik, haurren jolasa askoz ere aberasgarriagoa izango da ingurune eta material naturalekin jolastean badute, eta horretarako aukera eman behar zaie. Objektu naturalekin jolastean, aukera anitzak aurkitzen dituzte haurrek jolasa sortzeko, alegia, objektu guztiak dira desberdinak, eta, zentzumenak pizteari dagokionean, plastikozkoak baino konplexuagoak. Horrez gain, lehen esan dudana bezala, material hauek ez direnez egituratutakoak, jolas irekia ahalbidetzen dute, haurren fantasia eta irudimena elikatuz.

Bukatzeko, eskolaz kanpoko espazio irekiak lehenesten saiatu beharko ginatekeela ere esan nahi dut. Eskolak kanpora atera behar du, eta umeak ingurunearekin askoz harreman estuagoak eraiki beharko lituzke. Ateratzea eguneroko jardueraren izatera pasa beharko litzateke, eta inguruan ditugun kale, parke eta instalazioek umeen presentziarekin indarra hartzen joan beharko lukete (Agirre *et al.*, 2012). Haur Hezkuntzako helburu nagusiak aztertzen baditugu

(236/2015 Dekretua), Nortasunaren eraikuntzaren eta ingurune fisiko eta sozialaren ezagueraren eremuan, badaude bi helburu, oso lotuta daudenak ideia honekin, 6. eta 7. hain zuzen ere.

6) Ingurune fisiko eta soziala behatu eta aztertzea eta hura ezagutzeko interesa adieraztea, haren partaide izateko sena lantzeko eta ingurune horretan nolabaiteko segurtasunez eta autonomiaz jarduteko.

7) Ingurune fisikoa arakatzea eta esperimendatzea eta haren elementuetako batzuen ezaugarriak ezagutzeko, elementu horien gainean eragin eta haiek eraldatzeko gaitasuna lantzeko, eta interes eta errespetuzko jarrerak lantzea.

Bi helburu hauek bete nahi baditugu, eskolatik atera eta ingurune hau aztertzea, arakatzea eta bertan esperimendatzea ezinbestekoa da.

“Haur osasuntsuak haziko baditugu, naturarekin harremanetan jarri eta Lurra maitatzeko denbora eman beharko diegu, Lurra salba dezatela eskatu baino lehen” (Sobel, 1996).

4.- HELBURUAK

Proiektuaren helburu orokorrak:

Lantziego ikastola eskola publikoko kanpo espazioaren diagnostikoa egitea, eskola-komunitate osoaren parte-hartzea erreferentziatzat hartuta. Gaur egungo joko-espazioen indarguneak eta ahulguneak definitzea, eta horretan oinarrituta, ekintza-plan bat diseinatzea, espazioak hezkidetzaren ikuspegitik berriro diseinatzeko.

Helburu espezifikak:

- Lantziego Ikastolako jolastokiaren diagnostikoa egitea genero-ikuspegia kontuan hartuta. Neska eta mutilek egiten duten espazioaren erabilera behatzea, gatazka-eremuak identifikatzea, espazioen indarguneak eta ahuleziak aztertzea.
- Patioa berdisenatzeko proposamenean, honako irizpide hauek kontuan hartzea:

- Generoen, adinaren, jatorriaren eta dibertsitate funtzionala duten haurren artean, espazioaren erabilera dauden desberdintasunak orekatzea.
 - Generoen, adinaren, jatorriaren eta dibertsitate funtzionala duten haurren artean espazioen, baliabideen eta jardueren erabilera partekatua sustatzea.
 - Estereotipoen erantzuten dieten jardueren bereizketa murriztea eta genero-ereduak apurtzea.
- Eskola komunitateko partaide guztien ikuspuntua ezagutzea eta haien parte hartzea sustatzea.
 - Hezkidetzan eta egindako diagnostikoan oinarritutako esku-hartze plan bat diseinatzea.

5.- METODOA

Atal honetan, lehenik eta behin Lantziego ikastolako testuingurua aurkeztuko da eta parte hartzaileen ezaugarriak azalduko dira. Modu berean, informazioa jasotzeko erabili diren tresnak. Beranduago, jasotako informazioa analizatzeko kategoria sistema bat, eta azkenik, prozesu guztiaren prozedura.

5.1.- TESTUINGURUA

Lantziego ikastola, D ereduko eskola publikoa da. Eskolako izenak adierazten duen bezala, Lantziegon kokatuta dago, Arabako Errioxako herri txiki batean. Lantziegok 691 biztanle ditu, horregatik nahiko herri txikia dela esan daiteke. Eskolak, Lantziegotik gertu dauden 3 herri desberdinetako haurrak jasotzen ditu, Bilar, Kripan eta Lantziegokoak hain zuzen. Arabako Errioxan dagoen D ereduko eskola publiko bakarra da.

Bi etapek konpartitzen dute eskolako eraikuntza: Lehen Hezkuntzak eta Haur Hezkuntzak. Haur Hezkuntzan 35 ume daude, Lehen Hezkuntzan aldiz, 39. Guztira, 74 haur dira. Ikusi dezakegunez, Lantziego Ikastola, eskola txikia da. Eskola txikia izateko eskolek hiru balditza bete behar dituzte:

1. Adin aniztasuna, hau da, adin desberdinetako haurrekin taldeak osatzea.

2. Landa eremuan kokatuta egotea, horrek ematen dituen aukera guztiekin: naturarekin harremana, ingurua eta herria hobeto ezagutzea...
3. Txikitasun kualitatiboa. Hau da, eskola txikia izateagatik familiekin eta haurrekin harreman estuagoa izatea eta eskola komunitatean gertutasun handiko harremanak izatea.

Adin aniztasunari dagokionez, eskola honetan, adin desberdinetako haurrekin sortzen dira taldeak. Eta hala ere, oso ume gutxi elkartzen dira gelan, hiri bateko eskola batekin konparatuta. Haurrak 5 taldetan banatuta daude, Haur Hezkuntzan 2 talde eta Lehen Hezkuntzan 3 talde:

- HH 2 eta 3 urte
- HH 4 eta 5 urte
- LH Lehenengo zikloa, hau da, 1. eta 2. mailak.
- LH Bigarren zikloa, hau da, 3. eta 4. mailak.
- LH Hirugarren zikloa, hau da, 5. eta 6. mailak

Gaur egungo Lantziego ikastolako kanpo espazioa oso handia da, eta horrek hainbat aukera eskaintzen ditu. Hala ere, ez dago batere ondo aprobetxatuta edo antolatuta. Naturaren presentziari dagokionez, berdegune txiki batzuk antzematen diren arren, jolastokia ia erabat asfaltatuta dago. Horrek kirol batzuk praktikatzea errazten du, futbola edo saskibaloia kasu honetan, eta beste jolas mota batzuk guztiz baztertzen ditu. Ondorioz, naturaren presentzia nahiko eskasa da (Ikus 1. eranskina).

5.2.- PARTE HARTZAILEAK

Eskola bateko kanpo espazioa aztertzerako orduan, espazio horren erabilera egunerokotasunean ezagutzen duten pertsona guztien parte hartzea bermatzea ezinbestekoa dela uste dut. Izan ere, eskola komunitateko partaide guztiek daukate zerbait emateko, eta guzti hauen ahotsak jasotzea oso aberasgarria izan daiteke.

Umeengan eragina izango duen erabaki bat hartzerako orduan, umeek daukaten iritzia ezagutzea oinarrizkoa da. Tonuccik (2007) hasitako pentsamendu-korrontearen harira, kanpoko espazioetako protagonista nagusien ahotsa entzutea ezinbestekoa da. Izan ere,

umeak dira, espazio hori erabiliko dutenak. Porlán eta de Alba-ren (2012) arabera, lankidetzaprozesuek, adingabeek adierazteko eta entzunak izateko duten eskubidea errespetatu behar dute.

Beste alde batetik, irakasle eta familien inplikazioa ere kontuan hartu behar da. Familiek, haurrak oso ondo ezagutzen dituzte eta kanpoko espazioen erabiltzaileak ere badira. Gainera, garrantzitsua da prozesu horietatik sortzen diren aldaketa-proposamenak unean uneko aldaketak ez izatea, baizik eta "eskola-aldaketak" izatea. Hau da, nortasun kolektiboa sortzen laguntzen duten proiektu nagusiak (Sánchez-Moreno eta López-Yáñez, 2010), hezkuntza-komunitate gisa duen nortasuna indartzen laguntzen dutenak eta, azken batean, hausnarketa-kultura bat sortzen laguntzen dutenak (Miranda, 2002), kide guztiek hausnartu, ikasi eta garatu ahal izan dezaten.

Parte hartzeari dagokionez, irakasleentzako eta familientzako sortutako galdetegian 31 pertsonak parte hartu dute. Haurrentzako prestatutako galdetegian, aldiz, 35 umek parte hartu dute eta ume txikienekin egindako inkesta bisualean 35 umek. Jarraian, erabilitako tresna hauen ezaugarriak azalduko dira.

5.3.- INFORMAZIOA JASOTZEKO TRESNAK

Lantziego Ikastolako kanpo espazioa eta honi ematen zaion erabilera aztertzeke hiru tresna desberdin erabili ditut: behaketa, galdetegia edo inkesta eta elkarrizketa. Lehenago esan bezala, eskola komunitateko partaide guztien (umeen, gurasoen eta irakasleen) iritzia jakitea ezinbestekoa da, ondorioz, hainbat tresna desberdin erabili ditut informazioa jaso ahal izateko.

Lehenik eta behin, zuzeneko behaketa bat egin dut. Hau da, eskolako jolastokira joan naiz zuzenean hurrek egiten duten espazioaren erabilera aztertzerako, haiek nola jolasten duten ikusita. Behaketa hau egiteko 2 saio desberdin erabili ditut eta saio bakoitza 30 minututakoa izan da, errekreoak irauten duen denbora hain zuzen ere. Jolastokiaren zonalde bakoitzean sortzen diren jolasak ondo aztertzeke, eskolako kanpo espazioa 5 eremu desberdinetan banatu dut, eta zonalde bakoitza banaka behatu eta oharrak jaso ditut. Ereduak aztertzeke, irizpide hauek hartu ditut kontuan: eremu horretan sortzen diren jarrera motak, jolas mota, naturaren

presentzia, erabiltzen den materiala, jolas desberdinak sortzeko aukera eta bertan errepresentatzen diren genero rola edo jerarkiak.

Beste alde batetik, galdetegi desberdinak sortu ditut gaur egungo jolastokiaren inguruan umeei, familiek eta irakasleek daukaten iritzia ezagutzeko (Ikus 3. eranskina). Galdetegia, pertsona askoren datuak biltzeko edo gai jakin bati buruzko iritzia ezagutzeko egiten den galdera-sorta da. Google forms-en bitartez egin ditut, bertan, galdetegi desberdinak sortu daitezke eta oso tresna baliagarria iruditu zait.

Lehen Hezkuntzako bigarren eta hirugarren zikloko umeei egindako galderak:

- Baloratu eskolako jolastokiak, jolasteko eskaintzen dituen aukerak 1etik 3ra.
- Ondo pasatzen duzu bertan jolasten?
- Jolastokiko ze eremutan jolasten duzu gehien?
- Non ez duzu inoiz jolasten?
- Zer da jolastokitik gehien eta gutxien gustatzen zaizuna?
- Zer proposatuko zenuke Lantziego Ikastolako jolastokia hobetzeko?

Irakasle eta gurasoei egindako galderak:

- Baloratu eskolako kanpo espazioa 1etik 5era.
- Baloratu jolastokia azpiegituren arabera.
- Zer proposatuko zenuke jolastokia hobetzeko?

Horrelako galdetegi baten bitartez, zaila da adin guztietako umeen iritzia ezagutzea. Izan ere, ume txikienek ez daukate inkesta bat erantzuteko gaitasun nahikorik, horregatik, irudiez baliatu naiz txikienen iritzia ezagutu ahal izateko. Horretarako, kanpo espazioetako eremu desberdinen hainbat argazki erakutsi zaizkie umeei (batzuk gaur egungo jolastokiarekin lotura daukatenak eta beste batzuk zer ikusirik ez daukatenak), eta gehien gustuko dituzten irudiak aukeratzeko eskatu zaie (Ikus 2. eranskina). Horrela, ume txikienei ere jolastokiaren eraldaketa prozesuan parte hartzeko aukera eman zaie.

Azkenik, jasotako informazioa osatu ahal izateko elkarrizketa bat egin diet eskolako zuzendariari eta irakasle bat (Ikus 4. eranskina). Elkarrizketa, pertsonen arteko komunikazio-modu bat da, informazioa ematea edo jasotzea helburu duena, eta, horren

arabera, erabaki jakin batzuk hartzen dira. Hauek izan dira, informazioa osatzeko egin ditudan galderak:

- Eskolako kanpo espazioa egokia dela uste duzue? Zergatik?
- Zergatik uste duzue dela garrantzitsua garapen testuingurua edo espazioaren antolaketa egokia?
- Jolastokiaren egiturak jolasa baldintzatzen duela uste duzue?
- Eskolan ume guztiak nahi dutenera jolasteko aukera daukatela uste duzue?
- Gizarteak inposatzen dituen genero rolak ikusten dituzue jolastokian isladatuta?
- Naturaren presentzia nahikoa dela esango zenukete?
- Zer proposatuko zenukete jolastokia hobetzeko?

5.4.- INFORMAZIOAREN ANALISIA

Jasotako informazioa aztertzeko kategoria sistema bat sortu dut, jolastokiko eremu bakoitzaren arabera. Eremu bakoitzean honakoak aztertu dira: ematen den jarrera mota, jolas mota, eremu horretan dagoen naturaren presentzia, erabiltzen den materiala, jolas desberdinak sortzeko dagoen aukera eta errepresentatzen diren genero rolak edo hierarkiak.

1. taula: Kategoria-sistema

	DIMENTSIOA	KATEGORIAK	AZPIKATEGORIAK
FUTBOL ZELAIA	Jarrera mota	-Jarrera matxistak -Lehiakortasun handia -Telebistan ikusten dituzten jarrerak imitatu	-Haserraldi handiak -Frustrazioa kontrolatzeko gaitasun falta
	Jolas mota	- Jolas agresiboa -Umeengan antsietate maila handia sortu	- Ez da jolas osasuntsua eta eraikitzailea - Gelara bueltatzerakoan asko kostatzen zaie lanean zentratzea alterazio maila hori jeitsi arte

	Naturaren presentzia	- Naturaren presentzia eza	- Zelaia zementuzkoa da
	Materiala	- Futbol baloia	
	Jolas desberdinak sortzeko aukerak	- Jolas desberdinak sortzeko aukera gutxi	- Umeek futbola lehenesten dute, eta ez dute beste jarduera batzuetan aritu nahi. - Zaila da beste jolas mota batzuk bultzatzea.
	Errepresentatzen diren genero-rolak edo hierarkiak	-Mutilak eremuaren erabiltzaileak eta jolasaren protagonistak	-Neskek batzuetan jolasten dute baina mutilek daukate jolasaren kontrola -Neskek egoera normalizatu eta onartu
ZUHAITZEN ALDEA	Jarrera mota	- Jarrera lasaia - Lehiakortasunik ez	- Jarrera eta harreman osasuntsuak antzematen dira
	Jolas mota	- Erronka gisako jolasak - Jolas ez-arautuak - Bilkurak egiteko eremu aproposa	- Bakoitza erronka gaintitzen saiatzen da baina ez da haserraldi handirik antzematen - Askotan lasai egoteko eta haien artean hitz egiteko erabiltzen dute
	Naturaren presentzia	- Naturaren presentzia handia	- Zuhaitzez eta berdegunez osatuta dago
	Materiala	- Material anitzak eta naturalak	- Material ez estrukturatua erabiltzen dute gehienetan, sormena garatzeko aukera gehiago ematen duena: sokak, makiltxoak, hostoak...
	Jolas desberdinak sortzeko aukera	- Jolas desberdinak sortzeko aukera anitzak	- Umeak dira jolasa asmatzen dutenak eta horrek aukera desberdin asko ematen ditu
	Errepresentatzen diren genero-rolak	- Neska eta mutilek elkarrekin jolastu	- Genero aldetik ez da banaketarik ikusten

	edo hierarkiak		-Harreman eta jarrera osasuntsuak sortzen dira
KOLUNPIOAK	Jarrera mota	- Orokorrean giro lasaia antzematen da	- Batzuetan liskarrak sortzen dira kolunpioak erabili nahi dituztelako okupatuta daudenean
	Jolas mota	- Jolas arautua - Batzuetan erronkak sortzen dira	- Kolunpioak diseinatuta dauden jolasetarako erabiltzen dituzte -Batzuetan jolas desberdinak sortzen dituzte
	Naturaren presentzia	- Kolunpioak natura eremu txiki batean daude	- Horrek asko areagotzen ditu eskaintzen dituen aukerak
	Materiala	- Kolunpioen estruktura - Inguruan dagoen material ez-estrukturatua	- Inguruan aurkitzen dituzten meterialekin jolasten dute: makilak, hostoak...
	Jolas desberdinak sortzeko aukera	- Jolas desberdinak sortzeko aukera badago	- Kolunpioen estrukturan jolasteaz gain, batzuetan erronka eta jolas desberdinak asmatzen dituzte
	Errepresentatzen diren genero-rolak edo hierarkiak	-	- Neska eta mutilek elkarrekin jolasten dute eta maila berean antzematen dira
SASKIBALOI KANTXA	Jarrera mota	- Lehiakortasunik ez	- Batzuetan gatazkak sortzen diren arren ematen den jarrera ez da agresiboa
	Jolas mota	- Jolas arautuak	
	Naturaren presentzia	- Naturaren presentzia eza	- Saskibaloia kantxa zementuzkoa da
	Materiala	- Jolasaren araberako materiala	- Erabiltzen duten materiala, jolasaren araberakoa izaten da: saskibaloia edo futbol baloia,

			patinak, sokak, ping-pong mahaia, palak eta pelotak, xakea...
	Jolas desberdinak sortzeko aukera	- Jolas desberdinak sortzeko aukera anitzak	- Ez dira saskibaloian jolasten ibiltzen bakarrik, beste jolas arautu batzuetan aritzen dira askotan: harrapaketa, patinatzen, mahai jolasetan, ping-pong...
	Errepresentatzen diren genero rolak	- Neska eta mutilen arteko nahasketa	- Neska eta mutilen artean ez da desberdintasun handirik antzematen
ATERPEA	Jarrera mota	- Jarrera agresiboa	- Hormaren kontra baloiari ematen diote gogor, eta zarata handia entzuten da.
	Jolas mota	- Hormaren kontrako jolasak batez ere - Jolas agresiboak	
	Naturaren presentzia	- Naturaren presentzia eza	- Aterpean ez da berdegunerik ikusten
	Materiala	- Erabiltzen den materiala eskasa da	- Baloiren bat edo batere ez
	Jolas desberdinak sortzeko aukera	- Jolas desberdinak sortzeko nahiko toki mugatua	- Aterpea, euria egiten duenean erabiltzen da normalean
	Errepresentatzen diren genero rolak	- genero rolak eta hierarkiak erreproduzitzen dira	- Generoen arteko banaketa handia - Neskak inguruetan kokatu - Mutilak jolas agresiboagoetan aritu

5.5.- PROZEDURA

Lantziego Ikastola gertutik ezagutzen dudan eskola bat da. Horregatik, lan hau aurrera eramatea erabaki nuen lehenengo momentuan, Lantziego Ikastola etorri zitzaidan burura.

Lanaren atal praktikoarekin hasteko, lehenik eta behin, eskolako zuzendariarekin hitz egin nuen, eta lan hau aurrera eramateko baimena eskatu nion.

Eskolak baietza eman zidanean, prozedura antolatzen hasi nintzen. Aurretik azaldu dudan bezala, Lantziegoko jolastokiko behaketa egiteko hiru tresna erabili ditut: galdetegia, zuzeneko behaketa eta elkarrizketa. Horregatik, behaketa egiteko, galdetegiak prestatzen hasi nintzen lehenengo. Bi galdetegi desberdin prestatu nituen: umei zuzendutakoa eta helduei zuzendutakoa (irakasle eta gurasoei), eta prest nituenean, zuzendariaren laguntzarekin, eskola komunitateko partaideen artean helarazi nituen. Hurrengo urratsa, ume txikientzako galdetegi bisual bat prestatzea izan zen. Horretarako, jolastoki desberdinetako argazkiak bilatu eta batzuk aukeratu nituen, umeek gehien gustatzen zitzaaien ereduak aukeratu zezaten.

Eskolara joan nintzen lehenengo egunean, Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako lehenengo zikloko geletara joan nintzen eta irakasleen laguntzarekin, gehien gustoko zuten irudia aukeratzeko eskatu nien haurrei. Ondoren, erantzuten zutenarekin oharrak hartu nituen. Egun horretan bertan, eskolan nengoela aprobetxatuta, jolastokiko orduan, lehenengoko behaketa bat egin nuen. Horretarako eremuak zehaztu nituen: futbol zelaia, saskibaloia kantxa, zuhaitzen aldea, kolunpioak eta aterpea. Zuzeneko behaketaren lehenengo egunean futbol zelaia eta saskibaloia kantxa aztertu nituen batez ere.

Beste egun batean, berriro ere Lantziegora bueltatu nintzen falta zitzaizkidan eremuak behatu ahal izateko eta falta zitzaizkidanak aztertu nituen: zuhaitzen aldea, kolunpioak eta aterpea. Azkenik behaketa bukatu ondoren, eskolako zuzendariarekin eta irakasle batekin elkartu nintzen, eta lehenagotik prestatuta neukan elkarrizketa egin nien.

6.- EMAITZAK

Jasotako informazio guztia ondo aztertu ondoren hainbat emaitza jaso ditut, jolastokiaren diagnostika egiten lagundu didatenak. Hauek ondo azaltzeko, eremu bakoitzeren behaketan jasotako informazioa azalduko dut, galdetegietan jasotako erantzunak, ikasle eta irakasleek esandakoarekin osatuz.

Orokorrean, galdetegietan aztertu daitekenez, bai umeek eta bai guraso eta irakasleek nahiko ondo baloratzen dute eskolako jolastokia eta bertan dauden azpiegiturak. Esaten

dutenez, espazioa oso handia da, eta horrek hainbat aukera eskaintzen ditu. Hala ere, batzuen ustez ez dago batere ondo aprobetxatuta edo antolatuta. Naturaren presentziari dagokionez, berdegune txiki batzuk antzematen diren arren, jolastokia ia erabat asfaltatuta dago, Horrek kirol batzuk praktikatzea errazten du, futbola edo saskibaloia kasu honetan, eta beste jolas mota batzuk guztiz baztertzen ditu. Naturaren presentzia nahiko eskasa da eta horregatik, normalean, jolas reglatuak ematen dira Lantziegoko eskolan. Espazioak ez du jolas librea sustatzen.

Umei egindako galdetegiaren arabera, bi eremu nagusitzen dira gehienbat: zuhaitzen aldea eta futbol zelaia. Zuhaitzen aldean, umeen %45,7-ak jolasten du gehien eta futbol zelaian %40-ak. Saskibaloia kantxak eta aterpeak arrakasta gutxiago dauka: saskibaloia kantxan umeen %8,6-ak jolasten du eta aterpean %5,7-ak. Azkenik, kolunpioen aldeak bozka bat ere ez du jaso.

Beste alde batetik ikasleen gehiengoak uste du jolastokiak jolas desberdinetan aritzeko aukera nahikoak eskaintzen dituela. Hala ere, umeen %11,4-ak pentsatzen du eskolako jolastokiak aukera gutxi eskeintzen dituela jolasteko.

Jarraian, eremu bakoitzean ematen diren jarrera eta jolas motari buruz jaso den informazioa azalduko da eta horrekin batera, eremuak ematen dituen jolasteko aukerak, bertan dagoen naturaren presentzia, erabiltzen diren materialen nolakotasuna eta ematen diren genero rola edo hierarkiak.

Futbol zelaia:

Futbol zelaian behatutako jarrera motei dagokionez, orokorrean mutilak izaten dira eremu honetako erabiltzaileak, eta bertan jarrera matxistak antzematen dira. Neskek ere, batzuetan jolasten dute eremu horretan, baina argi ikusten da nork daukan jolasaren kontrola. Beraien ustez mutilak dira ondoen jolasten dutenak eta horregatik jolasaren protagonistak bilakatzen dira. Galdetegietan esaten dutenaren arabera, neskek egoera hau normalizatzen dute eta arazorik gabe onartzen dute. Gainera, haserraldi handiak egoten dira jolas honek sortzen duen lehiakortasun maila handiaren eraginez. Frustrazioa kontrolatzeko gaitasun falta handia antzematen da eta horrek diskusioak sortzen ditu. Telebistan ikusten dituzten jarrerak imitatzen dituztela ikusten da momentu batzuetan.

Haurrei egindako galdetegietan, futbol zelaia arrakasta handia dauka. Ume askok, futbola izendatzen dute haien zonalde gogokoena bezala. Gainera, jolastokia hobetzeko proposamenetan futbol zelaia berritu eta handitzea proposatzen dute haur batzuk. Beste ume batzuen erantzunetan aldiz, argi ikusten da futbol zelaia ez dela haien lehentasuna. Hainbat guraso eta irakaslek, futbolera jolasteko eremua txikitzea proposatzen dute, liskar gehiegi sortzen dituelako, eta umei jolasteko aukera gehiago eskeintzea eskatzen dute.

Aurretik komentatutakoa kontuan hartuta argi ikusten da jolas mota oso agresiboa dela eta ondorioz ez dela batere osasuntsua eta eraikitzailea. Jolasa baino gerra txiki bat ematen du. Gainera, irakasleek elkarrizketan adierazi dutenez, nolabaiteko antsietatea sortzen die ikasleei errekreora atera aurretik eta ondoren. Gelara bueltatzerakoan asko kostatzen zaie lanean zentratzea alterazio maila hori jeitsi arte.

Eremu honetan ikusten den naturaren presentzia, nahiko eskasa da. Nahiz eta futbol zelaia ondoan natura eremuak egon (belarra, zuhaitzak, lurra...), futbol zelaia bera zementuzkoa da eta naturaren presentzia murriztu egiten da bertan.

Beste alde batetik, zonalde honek, beste jolas mota batzuk sortzeko aukera gutxi ematen ditu, izan ere, ez da erraza egun batean ere umeek zonalde horretan beste jolas baten aritzea. Irakasleek diotenez, askotan saiatu dira egoera horri buelta ematen futbolean hainbeste liskar ez dadin sortu, baina zaila egiten zaie beste jolas mota batzuk bultzatzea. Garai batzuetan futbolean jokatzeko debekatzera ere heldu dira. Futbol zelai erdia ere konoekin mugatu izan dute patinekin ibiltzeko, baina, futbolarien ustez, beraiei kentzen zaie lekua eta ez da justoa haientzako, nahiz eta badakiten jolastoki osoaren ehuneko handi bat hartzen duela futbol zelaia. Eremu horretan beste jolas, kirol eta material batzuk bultzatzen ere saiatu dira, baina oso zaila egiten da egoera aldatzea. Ondorioz, eremu honek beste jolas mota batzuk sortzeko aukerarik ez du ematen.

Zuhaitzen aldea:

Eremu honetan ikusten diren jarrera eta jolas motak oso desberdinak dira. Zuhaitzez osatutako zonalde hau, beraien bilkurak egiteko toki aproposa da, askotan, hitz egiten egoten dira. Gainera, erronka gisako jolasak ikusten dira. Oro har, jolas lasaiak ematen dira eremu honetan eta barreak entzuten dira askotan. Esan bezala, “slack line”-arekin erronkak

asmatzen dituzte (ezetz salto egin sokaren gainetik hankak elkartuta, ezetz sokaren gainean hiru pauso eman erori gabe...). Bakoitza erronka gainditzen saiatzen da, baina normalean ez dira beraien artean haserretzen.

Naturaren presentzia handia ikusten da eremu honetan, izan ere, zuhaitzez eta berdegunez osatuta dago. Horrek, material anitzak eta naturalak erabiltzeko aukera ematen die umeei. Material ez estrukturatua erabiltzen dute gehienetan, sormena garatzeko aukera gehiago ematen duena: sokak, makiltxoak, udazkenean hostoekin ibiltzen dira asko...)

Eremu honetan sortzen diren jolasak, jolas ez arautuak izaten dira, unean bertan asmatzen dituztenak, horregatik, eremuak, jolas desberdinak sortzeko aukera anitzak ematen ditu. Umeak dira jolasa asmatzen dutenak eta inguruan aurkitzen duten materiala erabiltzen dute jolasean txertatzeko. Honek sormena garatzeko aukera handiagoa ematen diela uste dut.

Beste alde batetik, eremu honetan neskek eta mutilek elkarrekin jolasten dute, eta genero aldetik ez da banaketarik ikusten. Orokorrean, nahiko zonalde osasuntsua dela esango nuke, harreman eta jarrera positiboak sortzen laguntzen duena.

Umeei egindako galdetegiko hainbat erantzunetan ikusten da ume askori zonalde hau asko gustatzen zaiela. Izan ere, haien eranatzunen arabera zuhaitzen aldean, umeen %45,7-ak jolasten du gehien. Umeen arabera, zonalde honek ere, arrakasta handia izaten du, futbol zelaiarekin batera.

Kolunpioak:

Eremu honetan Haur Hezkuntzako umeek jolasten dute normalean. Ematen diren jarrera eta jolas motei dagokienez, antzematen den giroa lasaia da oro har. Batzuetan liskarrak sortzen dira kolunpioak erabili nahi dituztelako okupatuta daudenan, baina, onartzen ikasi behar dute okupatuta dagoela eta libratzen denean izango dutela aukera bertan jolasteko. Kolunpioak, diseinatuta dauden jolasetarako erabiltzen dituzte batzuetan, baina, askotan kolunpioek erronka bat suposatzen dute haur batzuentzako eta beste zerbait sinbolizatzen dute, jolasak asmatuz eta sormena areagotuz.

Kolunpioak natura eremu txiki batean daude eta uste dut, honek asko areagotzen dituela eskaintzen dituen aukerak. Erabiltzen duten materialari dagokionez, kolunpioen

estrukturaz gain, inguruan dagoen material ez estrukturatuarekin jolasten dute askotan, eta horrek jolas desberdinak sortzeko aukera ematen ditu. Eremu honetan, nahiko jolas aberasgarriak ikusi daitezke: makilekin zulo handi bat egiten ari dira belardian, zuhaitzen inguruan putzuak egiten direnean “txokolatea” egiten dute, kolunpioetan etxetxo bat, denda bat, adarretatik ateratako makiltxoekin ezpatak... Jolas sinbolikoak protagonismoa hartzen du eremu honetan

Eremu honetan errepresentatzen diren genero roletan edo hierarkietan arreta jarritz, nahiz eta batzuetan nesken eta mutilen jolasa berdina ez izan, elkarrekin jolasten dute eta maila berean antzematen direla esango nuke.

Esan bezala, eremu honetan ume txikienek jolasten dute normalean. Haiei egindako galdetegi bisualean, antzeko azpiegitura baten irudia azaltzen zen, gehien gustoko zuten irudia aukeratzeko eskatu zitzaizenean, ume batek ere ez zuen irudi hori aukeratu. Ume txikiek ere, beste aukera batzuk eskatzen dituzte.

Saskibaloia kantxa:

Eremu honetan, ez da futboleko eremuan ematen den lehiakortasuna antzematen. Ematen diren jarrerak eta jolas mota ez da hain agresiboa. Batzuetan, futbol baloi batekin aritzen dira hormaren kontra baloia botatzen, beste ume batzuk saskibaloian aritzen dira, baina, ez partida bat jokatzen baizik eta kanasta bakarrean jaurtiketa batzuk botatzen. Hala ere, beste jolas arautu batzuetan aritzen dira askotan: harrapaketa, patinatzen, mahai jolasetan, ping-pong...

Eremu honetan, ez dago naturaren presentziarik eta ondorioz ez dago naturaren elementuekin jolasteko aukerarik. Erabiltzen duten materiala, jolasaren arabera izaten da: saskibaloia edo futbol baloia, patinak, sokak, ping-pong mahaia, palak eta pelotak, xakea...

Futbol zelaiaren eremuarekin konparatuta, nahasketa handiagoa ikusten da neska eta mutilen artean.

Aterpea:

Eremu hau, batez ere, euria egiten duenean erabiltzen da, eta bertan, nahiko jarrera agresiboa antzematen da. Izan ere, eremu honetan, hormaren kontra baloiari ematen diote

gogor, eta zarata handia entzuten da. Beste batzuetan, eskupilotan jolasten ere ibiltzen ziren, baina azkenaldian ez dira horretan ibiltzen. Hormaren kontrako jolasak ikusten dira batez ere.

Jolas desberdinak sortzeko nahiko toki mugatua dela esango nuke, izan ere, ez dago naturaren presentziarik eta eremu honetan erabiltzen duten materiala eskasa da (baloiren bat edo batere ez).

Orokorrean mutilak jolas agresiboagoetan aritzen dira, lehen esan bezala hormaren kontra baloia botatzen eta neskak aldiz, inguruetan aritzen dira, haien artean hitz egiten, adibidez. Eremu honetan, generoen banaketa ikusten da, eta hierarkia desberdinak argi ikusi daitezke.

Aterpeak, umeen galdetegietan ez du arrakasta handirik izan. Alegia, esan bezala, espazio hau normalean euria egiten duenean erabiltzen da eta ez dauka ezer berezirik.

Azkenik, emaitzak bukatutzat emateko eskolako zuzendariari eta irakasle bati egindako elkarrizketa aipatu nahiko nuke. Esaten dutenez, jolastokiaren egiturak jolasa baldintzatzen du. Jolastokian futbol zelaia baldin badago, eremu horrek futbolera jolastera bultzatzen du gehienbat eta ondorioz ez ditu beste jolas mota batzuk bultzatzen. Haien ustez, hori da eskolako jolastokiko gabezia handienetariko bat. Beste alde batetik, haien ustez, jolastokiak ez du ematen aukerarik ume guztiek nahi dutenera jolasteko: “Beste jolas edo espazio mota batzuk eskaini ezkerok guztiz desberdina izango litzakela uste dugu, askoz ere aukera gehiago izango lukete beste jolas batzuk egiteko. Ume batzuk futbolzaleak dira eta futboleko jolasten dute, baina garbi ikusten da ume batzuei ez zaiela futbola gustatzen eta askotan ume hoiek dira ‘kolgatuta’ geratzen direnak”.

6.1.- KANPO-ESPAZIOA ERABERRITZEKO PROPOSAMENA

Lantziego ikastolako kanpo espazioak dituen gabezia eta onura guztiak sakonki identifikatu ondoren eta eskolako plano erreala kontuan hartuta, gaur egungoarekin zer ikusirik ez daukan kanpo espazio bat proposatzea gustatuko litzaidake teoriarik ikusitakoa eta irakasle, familia eta haurrengandik jasotako proposamenak kontuan hartuta.

Lehenik eta behin, hiru eremu desberdin planteatu ditut nire proposamenean: lasaitasun eremua, esperimentazio eta jolas sinbolikoaren eremua eta azkenik, mugimendu edo psikomotrizitate eremua. Hiru eremu hauek, naturaz eta naturaren elementuez osatuta daude, izan ere, lehenago askotan azaldu bezala, naturaren presentziak onura ugari dakartza umeen garapen prozesuetan eta horretaz baliatu nahi izan dut nire proposamenean (jarraian 1. irudia).

1. irudia. Patioaren berrikuntzarako proposamen. Hiru eremuak



Egindako proposamenean, eskolako jolastokian sartzekoan lehenengo aurkitzen den zonaldea, lasaitasunarena da. Bertan, bizikleta parking bat aurkitu dezakegu lehenengo. Eremu honetan, lasai egon nahi dutenentzako lekutxoak aurkitu ditzazkegu: mahai jolasak, ping-pong mahaiak, lagunekin hitz egiteko prestatutako mahaiak, irakurtzeko zonaldeak, asanblada egiteko eremua... (Ikus 5. eranskina)

Hurrengo eremua, esperimentazio eta jolas sinbolikoarena da. Bertan hainbat zonalde desberdin aurkitu ditzazkegu. Alde batetik ortua dago, eta bertan, fruta-arbol desberdinak, mahastiak eta negutegi bat. Beste alde batetik, aretoki handi bat, erraminta anitzekin: eskorgak, palak, arrasteluak, eskabadora txiki bat... Gainera, aretokiaren ondoan, urmael txiki bat kokatu dut, umeeek area bustitzeko edo urarekin esperimentatzeko aukera ere izan dezaten. (Ikus 6. eranskina)

Mugimendu eta psikomotrizitate eremuan hainbat zuhaitz-etxe kokatu ditut eta bakoitzak aukera desberdinak eskaintzen dizkie umeei: etxeetara igo eta jaitsi ahal izateko modu desberdinak (sareak, eskailerak, txirristak, sokak...), tirolina, rokodromoak, oreka mantentzeko lekuak, zubiak, etab. (Ikus 7.eranskina).

Azkenik, ikerketa lan honetan ikusi dugun bezala, taldeka jolasten diren kirolek eta batez ere, futbolak, hainbat jarrera agresibo eta matxistak eta lehiakortasun handia sustatzen duten arren, umeei futboleko jolasteko eremu bat ere eskatzen dute, eta hori ukatzea ez zait bidezkoa irudituko. Horregatik, bai futboleko, saskibaloioan edota edozein jolas egiteko erabili daitezkeen eremu polianitz bat sortu dut ere. Hala ere, proposamen honekin futbol zelaiari protagonismo handia kendu diodala uste dut. (Ikus 8.eranskina).

Lantziego ikastolako jolastokiaren proposamen hau egiterakoan, landutako alderdi teorikoaz gain, hainbat gauza hartu ditut kontuan: jolastokiak Lantziegoko inguruarekin (Arabako Errioxa) lotura handia dauka, izan ere, jolastokian zehar mahastiak, olibondoak eta upelekin egindako mahai eta bankuak aurkitu daitezke. Gainera, birziklatutako materialak erabiltzeari garrantzia eman diot: gorpilak, upelak... Eta azkenik, jolastokia, urritasun funtzionala duten umeentzako prestatzen saiatu naiz: eskailerak beharrezko aldapak, zuhaitz etxeetara igo ahal izateko ranpak....

7.- EZTABAIDA ETA ONDORIOAK

Azken atal honetan, egindako ibilbide guztiaren ondorioak islatuko dira. Alegia, behin jasotako informazioa ondo aztertu eta horren emaitzak adierazi direla, prozesuaren ondorioak azalduko ditut. Horretarako, nire esperientzia eta jasotako emaitzak autore desberdinek estatuen dutenarekin eztabaidan jarriko dit ikerketari amaiera emateko.

Aitziber Benitok, Beatriz Nuin-ek eta Yon Sorarrain-ek (2019) adierazten duten bezala, azkenengo urteetan, haurren ikaskuntza-prozesuan laguntzeko moduak eguneratu egin dira, baina, kasu askotan, eskolako jolastokiaren egungo egitura eta diseinua ez da bilakaera pedagogiko horren eskutik joan, eta espazio asfaltatu bakarra eskaintzera mugatu da.

Gaur egun, esklusiboki erabiltzen ditugun material artifizialez eta egituratuz betetako mundu batean bizi gara eta material horiek oso informazio gutxi ematen diete txikienei. Adituek diotenez, haurrek naturarekin kontaktua izatea eta iturri jasangarrietatik datozen

material naturalak erabiltzea beharrezkoa da naturarekin konektatzeko eta modu jasangarrietatik datozen materialekin jolasteko aukera izateko (Perez-Delgado, 2020). Hori horrela izanik, aztertu dugun kanpo-espazioan, naturaren presentziari dagokionez, berdegune txiki batzuk antzematen diren arren, jolastokia ia erabat asfaltatuta dago, naturaren presentzia eza eskolako jolastokiaren gabezia handienetariko bat izanik.

Jakin badakigu, ingurunean modu naturalean kokatuta dauden elementu horiek estimulazio naturala ematen dietela haurrei, esperientzia sensorial paregabea eskainiz (Perez-Delgado, 2020) baina aztertu dugun espazioan aukera horiek oso murriztuta daude, horregatik, kanpo-espazioa eraberritzeko proposamenean garrantzi handia eman diot naturaren presentziari, umeei jolas ez-egituratuak sortzeko aukera gehiago izan ditzaten, horrela hauen sormena eta irudimena sustatuz.

Era berean, ikerketa askok erakusten dute mota horretako hezkuntza-programak txikitatik aplikatzeak, etorkizuneko portaera hobetzen duela eta haurrek ingurune naturalarekiko duten kontzientzia indartzen duela (Pérez-Delgado, 2020). Ezinbestekoa da, gizakiok, natura eta gure mundua maitatzen eta zaintzen ikastea. Lehen haurtzaroan naturarekin izandako esperientziak, ingurunearekiko errespetua garatzen laguntzen du, eta hori, irakasleok, kontuan hartu behar dugun alderdi bat dela uste dut.

Beste alde batetik, genero ikuspegia oso garrantzitsua den alderdia da. Kanpoan sortzen dituzten jolasetan, neska eta mutilen arteko hierarkizazio desberdinak daude, rola banatzeko moduaren bidez ikus daitezkeenak. Mutilek, oro har, neskekiko lidergoa erakusteko joera izaten dute eta maskulinitzat jotzen diren jolasak baino ez dituzte egin nahi, hau da, ez dituzte aintzat hartzen zertxobait femeninoak izan daitezkeen gainerako jolasak. Jolasteko orduan, desberdintasun handia ikusten da espazioak banatzeko moduari dagokionean, hau da, neska eta mutilen jolasetan banaketa handia dago. Jokabide desberdinen bidez agerian geratzen da, nesken jolas gehienak pasiboak direla eta mutilenak aldiz, aktiboak. Jolastokia, ez da hezkuntza-espaziotzat hartzen, eta bertan irakasleek ez dute izaten inplikazio aktiborik, ondorioz, Haur eta Lehen Hezkuntzako curriculumak planteatzen dituen helburu guztiekin talka egiten duten gaitasunak garatzen dira bertan.

Lantziego Ikastolan, eskola desberdinetako jolastoki askotan ematen den genero banaketa hau ikusteko aukera izan dut. Eskola honetan, oso garbi ikusten da, futbola

adibidez, kaltegarria eta injustoa dela egoera askotan: liskar gehiegi sortzen ditu, jolastokiaren zati handi bat hartzen du eta mutilak izaten dira normalean jolasaren protagonistak. Horrela antolatutako espazio batek, futbolari protagonismo guztia ematen dio, eta horrek, zeharka, gizarteko genero rolak erreproduzitzen ditu umeengan.

Azkenik, Lantziego ikastolako kanpo-espazioak, gabezia asko dituen arren, hainbat onura ere baditu. Izan ere, espazioa oso handia da, eta horrek hainbat aukera eskaintzen ditu. Aurreko ataletan azaldu den bezala, inguru edo eremu batzuetan (zuhaitzen zonaldean adibidez) umeek sortzen dituzten jolasak oso aberasgarriak dira. Hala ere, espazioa, ez dago batere ondo antolatuta eta ez dago hezkuntza ikuspegi batetik diseinaturik. Oro har, eskola bateko kanpoko espazioa diseinatzerako orduan argi izan behar dugu, ikasteko, funtsezko alderdi bat jakin-mina dela. Kanpo espazioek aukera paregabea ematen diete umei, jakinmina eta motibazioaren bitartez, gelatik kanpo ikasten jarraitzeko, eta horregatik, espazioei daukaten garrantzia eman behar diegula uste dut. Irakasleok, jakin-mina piztu behar dugu gure ikasleengan. Horregatik, baliabideak eman behar dizkiegu haien interesa eta motibazioa bermatzeko.

Ikerketa lan hau, nire ikaskuntza prozesurako oso aberasgarria izan dela iruditzen zait. Izan ere, lan honekin hasi aurretik ez nien kanpoko espazioei behar besteko garrantzia ematen. Lanak, aukera paregabea eman dit, espazioen inguruko hausnarketa sakon bat egiteko, eta gaiaren inguruan asko ikasi dut. Gainera, etorkizunean irakaslea izango naizenez, nire garapenerako esperientzia paregabea izan da.

8.- MUGAK ETA HOBEKUNTZA PROPOSAMENAK

Ikerketa guztia burutu eta atalez atal azaldu eta garatu ostean, hobekuntza proposamenetan zentratuko naiz azkenik. Egia esan, oso pozik nago egindako lanarekin eta egin dudan bitartean ikasi dudan guztiarekin. Baina, hala ere, beti egongo da zerbait hobetzeko, eta hori da atal honetan azalduko dudana.

Lehenik eta behin, informazio gehiago lortu ahal izateko ikasle eta guraso gehiagoren parte hartzea espero nuen, honek, iritzi gehiago eskura izaterakoan, lana aberastuko lukeela uste dut. Hala ere, esan beharra daukat asko eskertzen dudala, Lantziego ikastolako komunitate guztiak egindako aportazioa eta batez ere eskolako zuzendariak eta irakasleek lan

hau aurrera eramateko eskeinitako laguntza guztia. Beste alde batetik, horretan, nire antolaketak ere eragina izan duela esango nuke. Izan ere, galdetegia beste modu batean egin izango banu, presentzialki eta paperean adibidez, ikasleen erantzun gehiago lortzeko aukera izango nukeela uste dut.

Bestalde, nik egindako kanpo-espazioa eraberritzeko proposamenean, Euskal kulturako parte diren kirolak sustatzeko, frontoi bat falta dela esan daiteke. Aberasgarria izango litzake eskolan bertan frontoi bat egotea, baina, eskolaren beharrak aztertzerakoan, konturatu nintzen herriko frontoia eskolatik oso gertu dagoela, eta eskolak baimena daukala nahi duenean hau erabiltzeko. Horregatik, eskolak dituen beste behar batzuei protagonismo handiagoa ematea egokia iruditu zait.

Atalari amaiera emateko, konklusio gisa, esan, zailtasunak zailtasun lana behar bezala aurrera eraman dudala eta ikerketa probetxuzkoa izan dela. Izan ere, egindako ekarpenarekin hezkuntza errealitatea hobeto ezagutzeko aukera izan dut.

9.- ERREFERENTZIA BIBLIOGRAFIKOAK

Agirre, N., Garmendia, I., Guilló, M., Irastorza, M.K., Jauregi, P., Larrañaga, I., Larreta, A., Oiarbide, J., Saenz, M., Sarasua, X. (2012). Elkarrizketa: Bilgune feminista. *Hik hasi*, 166, 16-24.

Agirre, N., Garmendia, I., Guilló, M., Irastorza, M.K., Jauregi, P., Larrañaga, I., Larreta, A., Oiarbide, J., Saenz, M., Sarasua, X. (2012). Espazioa, bizi dugunaren markoa. *Hik hasi*, 173, 10-15.

Agirre, N., Garmendia, I., Guilló, M., Irastorza, M.K., Jauregi, P., Larrañaga, I., Larreta, A., Oiarbide, J., Saenz, M., Sarasua, X. (2013). Espazioaren antolaketa haurren autonomia garatzeko. *Hik hasi*, 174, 10-15.

Aizarna, K., Azpiroz, A., Garmendia, I., Guilló, M., Larreta, A., Oiarbide, J., Puiggros, E., Saenz, M., Sarasua, X., Txapartegi, J., Urbe, A., Usobiaga, A. (2016). Natura heziketarako espazio. *Hik hasi*, 211, 22-25.

Araujo, A., Auzmendi, J.M., Basurko, F., Goiburu, A., Hoyuelos, A., Guilló, M., Oiarbide, J. (2007). Reggio Emilia. *Hik hasi*, 19. *Monografikoa*, 52-54.

Azurmendi, J.M., Azpirotz, A., Gorostitzu, A., Mendizabal, A., Muñoa, A. (2018). Eskolako patioa. Ikasle guztiei leku egin nahiak *Hik hasi*. 224. 11-17.

Benito, A.; Nuin, B.; Sorarrain, Y. (2019). *Guía para el desarrollo de proyectos participativos de transformación de patios escolares*. Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.

C. Cols. (2008). El patio de mi escuela; un espacio significativo. In I. Martínez (coord.) *Construir la escuela desde el niño. Perspectivas educativas en el 0-3. 4º Encuentro Formativo de Escuelas Infantiles Municipales*. Madrid

236/2015 Dekretua, abenduaren 22koa, Oinarrizko Hezkuntzaren curriculum zehaztu eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzen duena. Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria. Vitoria-Gasteiz, 2016ko urtarrilak 15, 9. zk., 1-50 orr. <https://www.euskadi.eus/bopv2/datos/2016/01/1600141e>.

Freire, H. (2015). *Berdean hezi*. Txatxilipurdi.

Larramendi, I. (2016). Eskoletako jolastokiak eta genero rola: diseinuaren eragina genero-nortasunaren eraikuntzan. *Aldiri*, 27, 18-21.

Malaguzzi, L. (2001). *La educación infantil en Reggio Emilia*. Octaedro - Rosa Sensat.

Miranda, E. (2002). «La supervisión escolar y el cambio educativo. Un modelo de supervisión para la transformación, desarrollo y mejora de los centros». *Profesorado. Revista de Currículum y Formación de Profesorado*, 6 (1-2), 1-15

Nair, P. (2016). *Diseño de espacios educativos*. SM.

Pérez-Delgado, R. (2020). *La naturaleza como elemento de aprendizaje en educación infantil* (Bachelor's thesis).

Porlán, R.; de Alba, N. (2012). La escuela que queremos. *Investigación en la escuela*, 77, 5-12.

Sánchez-Moreno, M.; López-Yáñez, J. (2010). Culturas institucionales que facilitan y dificultan la mejora en la escuela. *Profesorado. Revista de Currículum y Formación de Profesorado*, 14(1), 94-109.

Silvente, J. (2016). *Diseñar espacios educativos*. Veure Pensar Sentir.

Sobel, D. (1996). *Beyond Ecophobia. Reclaiming the Heart in Nature Education*. Great Barrington.

Tonucci, F. (2007). *40 años con ojos de niño*. Grao.

Trueba, B. (2015). *Espacios en armonía*. Octaedro - Rosa Sensat.

Warden, C. (2010). *Nature Kindergartens*, Mindstretchers, UK.

Zarrias, E. (2017). *Un cambio de mirada*. Autoeditatua.

10. ERANSKINAK

1 eranskina: Gaur egun Lantziego ikastolako kanpo espazioaren argazkiak.



2.eranskina: Lehen Hezkuntzako lehenengo zikloari eta Haur Hezkuntzako umeei erakutsitako argazkiak.





Ume txikienei egindako galdetegi bisualaren erantzunak:

1. irudia: 3 bozka
2. irudia: 3 bozka
3. irudia: 4 bozka
4. irudia: 4 bozka
5. irudia: bozkarik ez
6. irudia: bozka 1
7. irudia: bozkarik ez
8. irudia: 5 bozka
9. irudia: 3 bozka
10. irudia: 3 bozka
11. irudia: 3 bozka
12. irudia: bozkarik ez

13. irudia: bozkarik ez

14. irudia: 6 bozka

15. irudia: 0 bozka


16. irudia: 0 bozka

3 eranskina: Lehen Hezkuntzako ikasleen eta guraso eta irakasleen galdetegiaren emaitzak.

Ikasleen galdetegiak


Lehen Hezkuntzako bigarren eta hirugarren zikloko umeei egindako galdetegiaren emaitzak eta jasotako datuak:

- Generoa:




Erantzun duten umeen gehiengoa %68,6-a neskak dira. Aldiz, %31,4-a mutilak dira.

- Baloratu eskolako jolastokiak jolasteko eskaintzen dituen aukerak 1etik 3ra.




Grafiko honetan ikusten da ikasleen gehiengoak uste duela jolastokiak jolas desberdinetan aritzeko aukera nahikoak eskaintzen dituela. Hala ere, umeen %11,4-ak pentsatzen du eskolako jolastokiak aukera gutxi eskeintzen dituela jolasteko.

- Ondo pasatzen duzu bertan jolasten?




Grafikoaren arabera, umeen gehiengoak (%48,6 eta %45,7) ondo pasatzen du jolastokian. Umeen %5,7-ak aldiz, ez du ondo pasatzen bertan jolasten.

● Jolastokiko ze lekutan jolasten duzu gehien?



Galdera honetan, bi eremu nagusitzen dira gehienbat: zuhaitzen aldea eta futbol zelaia. Zuhaitzen aldean, umeen %45,7-ak jolasten du gehien eta futbol zelaian %40-ak. Saskibalo kantxak eta aterpeak arrakasta gutxiago dauka: saskibalo kantxan umeen %8,6-ak jolasten du eta aterpean %5,7-ak. Azkenik, kolunpioen aldeak bozka bat ere ez du jaso.

● Non ez duzu inoiz jolasten?



Datuen arabera, haur gehienek (%45,7-ak) ez dute inoiz jolasten kolunpioen eremuan. Beste alde batetik, umeen %20-ak ez du inoiz saskibalo kantxan jolasten. %17,1-ak ez du futbol

zelaian jolasten eta %11,4-ak aterpea ez du erabiltzen. Azkenik, %5,7-ak ez du inoiz zuhaitzen aldean jolasten. Grafikoaren arabera, zuhaitzen eremua da ume gehienek (gutxitan baldin bada ere) erabiltzen dutena, eta kolunpioen eremua da gutxien erabiltzen dena.

● Zer da jolastokitik gehien eta gutxien gustatzen zaizuna?

- Zuhaitzen aldean gehiago jolasten dut. Ez dut inoiz kolunpioetan jolasten.

-Gehiago gustatzen zaidana futbol zelaia da eta gutxien gustatzen zaidana saskibaloï kantxa da.

-Futbola gehien eta zuhaitzen aldea gutxien.

-Gehien gustatzen zaidana futbol zelaia da eta gutxien gustatzen zaidana kolunpioak dira.

-Gehien futbol zelaia gustatzen zait. Gutxien gustatzen zaidana 11:55tan baloia kentzea da.

-Futbol zelaia da gehien gustatzen zaidana. Saskibaloï kantxaa ez zait gustatzen.

-Ba niri, futbol zelaia egotea gustatzen zait. Jolastokitik gustatzen ez zaidana da parkea ume txikientzako dela.

-Saskibaloï kantxa da gehien gustatzen zaidana, eta futbol zelaia gutxien gustatzen zaidana.

-Gehien gustatzen zaidana baloiarekin jolastea da eta gutxien gustatzen zaidana saskibaloï kantxa.

-Gehien gustatzen zaidana zuhaitzen aldea da. Gutxien gustatzen zaidana saskibaloï kantxa da.

-Zuhaitzen aldean jolastea gustatzen zait gehien.

-Zuhaitzetan dagoen slackline-a gustatzen zait gehien. Kolunpioak ez zaizkit gustatzen.

-Futbol zelaia da gehien gustatzen zaidana, saskibaloï kantxa gutxien.

-Gehien gustatzen zaidana zuhaitzen eremua da. Futbol zelaia da gutxien gustatzen zaidana.

-Futbol zelaia da nire gogokoena, saskibaloï kantxa ez zait gustatzen.

-Zuhaitzen aldea da gehien gustatzen zaidana.

-Zuhaitzetan jolastea gustatzen zait gehien. Gutxien gustatzen zaidana saskibaloïa da.

-Futbol zelaia gustatzen zait. Zuhaitzen aldea ez zait gustatzen.

-Gehien gustatzen zaidana zuhaitzetan jolastea da. Gutxien, futbol zelaia.

-Zuhaitzen aldean jolastea gustatzen zait. Futbol zelaia ez dut erabiltzen, horregatik gutxien gustatzen zaidan eremua da.

-Gehien zuhaitzen aldea gustatzen zait. Gutxien, futbol zelaia.

-Gehien futbol zelaia gustatzen zait. Gutxien, kolunpioak.

-Zuhaitzen lekua asko gustatzen zait. Saski baloï kantxa ez zait gustatzen.

-Gehien gustatzen zaidana zuhaitzen aldea da. Gutxien gustatzen zaidana, aterpea.

- Jolastokitik gehien gustatzen zaidana nire liburua irakurtzea eta xakean jolastea da.
- Gehien gustatzen zaidana saskibaloia kantxa eta futbol zelaia dira. Gutxien gustatzen zaidana kolunpioak dira.
- Gehien gustatzen zaidana kolunpioak dira. Gutxien gustatzen zaidana, zuhaitzen aldea.

● Zer proposatuko zenuke Lantziego Ikastolako jolastokia hobetzeko?


- Piszina bat.
- Materiala denbora gehiago erabiltzea.
- Egurrezko txabola bat.
- Jolastokian egoteko denbora gehiago.
- Boleibol zelai bat egotea.
- Futbol zelaia handiagoa izatea, eta baloi gehiago egotea.
- Futbol zelaiak belarra izatea.
- Tranpolin bat ipintzea.
- Patinekin jolastu ahal izatea.
- Boleibol zelaia egotea.
- Saskibaloia kantxa.
- Belar gehiago duen espazio bat.
- Futbol zelaia.
- Nire iritziz ez dago ezer ez hobetzeko.
- Gimnasia egiteko lekua.
- Gimnasia erritmikoa egiteko zelai bat.
- Piszina bat tobogan eta guzti.
- Eskalatzeko leku bat.
- Futbol zelaia belarrezkoa izatea.
- Piszina bat.
- Futbol zelai handiagoa.
- Igerilekua.
- Piszina bat.
- Belarrezko futbol zelaia.
- Zuhaitz gehiago.
- Material gehiago egotea. Mahai jolasak edo beste jolas mota batzuk.
- Jolasteko denbora gehiago.
- Denok batera jolastu ahal izatea, aldatzearena rolo bat da.

- Nire proposamena da jolas gehiago egotea, jolas orduan jolasteko aukera gehiago izateko.


Guraso eta irakasleen galdetegiak

Guraso eta irakasleei egindako galdetegiaren emaitzak eta jasotako datuak:

- Baloratu eskolako kanpo espazioa (1etik 5era) :



- Baloratu jolastokia azpiegituren arabera (1etik 5era):



- Zer proposatuko zenuke eskolako jolastokia hobetzeko?

- Yo pondría un arenero, troncos de equilibrio...
- Aterpeak (baina ez egitura itxiak). Espazio bizia izatea (aukera anitzak ematen dituen, aniztasun funtzionalei oztoporik jartzen ez dion espazioa...)
- Más zonas cubiertas para días lluviosos y/o muy soleados.
- Futbolera jolasteko eremua txikituko nuke, liskar gehiegi sortzen ditu, eta material gehiago eskeini irakasleei.
- Aterpe bat eta ziburuen berriztapena.
- Futbol zelaiari protagonismoa kenduko nioke eta jarduera desberdinak egiteko txokoak jarri.
- Una zona cubierta para los días de lluvia.

- Espazio berde gehiago eta kirolari dagozkion esparruak markatu gabeak izatea, jolas librea gehiago lantzeko.
- El patio de la ikas de Lantziego está muy bien, sí que pondría algún columpio más para los más pequeños de habilidad motora.
- Ortua edota enborren zirkuitua proposatuko nituzke, adibidez.
- Algo más de sombra para los días de calor.
- Más sitios de juego.
- Egurrez eta gurpilekin egindako jolasak, materialak berrerabiliz. Hareleku bat, rokodromoa...
- Separar el campo de fútbol con redes o algo similar de la zona de columpios, renovar columpios.
- Harearekin jolasteko aukera, zuhaitz gehiago izatea (frutalak baldin badira hobe), jolas berriak (tirolina, sokak...)
- Definitu gabeko espazio gehiago, elementu natural gehiago, orekak lantzeko guneak (naturalak), lasai egoteko (mahai jolasak/irakurri) espazioak, gerizpeak...
- Menos fútbol y más diversidad.
- Oso espazio handia dugu eta aukera handia ematen duena baina futbol zelaiak espazio gehiegi okupatzen du. Futbol zelaia txikitu, airearekin jolasteko espazioak, rokodromoa...
- Una red delante de los columpios. Para separar portería de columpios. Más sombra.
- Jolas ez gidatua aurrera eramateko aukera gehiago izatea.
- Tener sitio para resguardarse los días de lluvia y columpios más modernos.
- Futbol zelaiari garrantzia kentzea, esparru aunitzeko guneak izatea, aurtengo slackline-ak arrakasta izan du (beste gauzaren bat oreka lantzeko?), zuhaitz frutalak izatea HH-n eta LH-n naturaren inguruko proiektu ezberdinekin lotzeko, bizikletarako (edo patineterako) aparkalekuak izatea...
- Zonalde berde gehiago, itzal gehiago, espazio gutxiago futbolarentzako, jolas alternatiboak bultzatzen dituzten espazioak (markak lurrian, ibilbideak...) iturri bat, loreak, aterperen bat, kolunpioen zonaldean eraikuntza berriak eta desberdinak...
- Salto egiteko, izkutatzeko, oreka mantentzeko... kolunpio gehiago, adibidez.
- Más zonas verdes, arenero y espacios relacionados con la naturaleza.

4 eranskina: Elkarrizketa.

- Eskolako kanpo espazioa egikia dela uste duzue? Zergatik?

Nik uste dut oso espazio handia daukagula, kontuan hartuta eskolan 75 bat ikasle daudela, lekua soberan daukagu. Zonalde desberdinak daude eta aukera pila bat ematen dituen espazioa da. Hala ere, ondo aprobetxatuta ez dagoela uste dugu.

- Zergatik uste duzue dela garrantzitsua garapen testuingurua edo espazioaren antolaketa egokia?

Ezin da kontsideratu jolastokia ez dela eskolaren zati bat. Askotan barruko espazioari garrantzia gehiago ematen zaio. Kanpoko espazioak mila aukera pedagogiko eskaini ditzake eta ezinbestekoa da horretan erreparatzea.

- Jolastokiaren egiturak jolasa baldintzatzen duela uste duzue?

Inongo zalantzarik gabe. Jolastokian futbol zelaia baldin badago, eremu horrek futbolera jolastera bultzatzen du gehienbat, ez ditu beste jolas mota batzuk bultzatzen. Gure jolastokiari hori gertatzen zaio, erdigunea, futbol-zelaia da, eta ondorioz jolasa baldintzatuta dago. Saskibaloia kantzarekin antzerako zerbait gertatzen da, bi zelaiak jolastokiaren erdigunean kokatuta daude, eta horrek garrantzia ematen die.

- Eskolan ume guztiek nahi dutenera jolasteko aukera daukatela uste duzue?

Uste dugu ezetz. Beste jolas edo espazio mota batzuk eskaini ezkerok guztiz desberdina izango litzakela uste dugu, askoz ere aukera gehiago izango lukete beste jolas batzuk egiteko. Ume batzuk futbolzaleak dira eta futboleko jolasten dute, baina garbi ikusten da ume batzuei ez zaiela futbola gustatzen eta askotan ume hoiek dira “kolgatuta” geratzen direnak, banku baten eserita edo, hau da, zerbait falta zaiela. Beste batzuetan, futbola gustatu ez arren, jolastera joaten dira, lagun hoiekin egoteko edo taldeko partaide izateko, baina benetan ez dabilta plazerragatik jolasten. Gainera uste dugu, futbolzaleek ere, beste aukera batzuk izan ezkerok, batzutan futbola aukeratu beharrean beste jolas batzuk ere aukeratuko lituzketela.

- Gizarteak inposatzen dituen genero rola ikusten dituzue jolastokian isladatuta?

Zalantzarik gabe. Batez ere, lehenago komentatu dugun bezala, futbolarekin ikusten dugu. Pasada bat da. Gero badaude beste jolas batzuk (sokasaltoa, gomak...), horrelakoak ateratzen ditugunean, mutilak normalean ez dira hurbiltzen jolas mota hoietara. Jolastokia, gizarteko

isla dela uste dugu, konsideratzen da jolas batzuk neskontzako bideratuta daudela eta beste batzuk mutilentzako. Futbolean jolasten dutenean, askotan telebistan agertzen diren jarrerak imitatzen dituzte. Argi dago genero ikuspegia erabat. Horregatik uste dugu jolastokiaren 9 eraldaketa bat polita eta positiboa izango zela genero ikuspegi hori aldatu ahal izateko. Gure kasuan, futbolean, neskek eta mutilek jolasten dute, baina oso argi ikusten da zeintzuk diren jolas horretan agintzen dutenak, hau da, nori pasatzen dioten baloia, norekin sortzen dituzten taldeak... Azkenean mutilak dira hor agintzen dutenak, eta bigarren mailakoak dira neskak, eta oso oso garbi ikusten da.

- Naturaren presentzia nahikoa dela esango zenukete?

Gurean badaude zuhaitz batzuk eta, baina uste dugu zonalde horri eman beharko geniokela beste protagonismo bat eta landatu beharko genituzkela zuhaitz gehiago. Uste dugu pribilegiatu batzuk garelako baditugulako berdeguneak eta zuhaitzak jolastokian, baina ez diogu ateratzen nahiko etekinik. Gainera, berdeguneak iskinetan kokatuta daude bakarrik, erdigune guztia zementua da.

- Zer proposatuko zenukete jolastokia hobetzeko?

Berdegune gehiago, naturaren presentzia gehiago. Jolas reglatuak ez diren beste aukera batzuk eskeintzea. Toki batzuk haurrak igotzeko, jaisteko, salto egiteko, eraikitzeko, jolas sinbolikoa egiteko... Beste esperientzia batzuk eskaintzen dituzten eremuak sortzea, eta ez hainbeste jolas reglatu hoiak. Jolas librea bultzatuko duten eremuak. Area edo lurrarekin jolasteko aukerak, karretilla eta pala batzuekin, tirolina bat, iturriren bat urarekin jolasteko aukera izateko. Batez ere mugimendua bultzatzen duten eremuak, eskalatzeko zonalde bat. Toki lasaiak ere garrantzitsuak direla uste dugu, irakurtzeko, mahi jolasetan aritzeko edota hausnartzeko aukera ematen dutenak. Haur Hezkuntzako umeentzako ere garrantzitsua da sentzoriala lantzea (ura, area...)

5 eranskina: Lantziego ikastolako jolastoki berriaren proposamena: LASAITASUN EREMUA







IRAKURKETA EREMUA

6. eranskina: Lantziego ikastolako jolastoki berriaren proposamena: ESPERIMENTAZIO
ETA JOLAS SINBOLIKORAKO EREMUA







7. eranskina: Lantziego ikastolako jolastoki berriaren proposamena: MUGIMENDU ETA PSIKOMOTRIZITATE EREMUA









TIROLINA ETA ROKODROMOA

8. eranskina: Lantziego ikastolako jolastoki berriaren proposamena: BALIOANIZTUN EREMUA

